


**BERRIKETAN**

Debako herri aldizkaria - 163. alea - 2012ko maiatza



**Badator**

**XXVI. Antzerki Astea**




**MULTIÓPTICAS UZURI**

OSTOLAZA, 7 • 20820 DEBA  
TEL. 943 19 21 92

**MULTIÓPTICAS Uzuri**

ZURE  
ENTZUMENA  
ZAINTZEN



**Mikel**

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasas
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206  
Tel./faxa: 943 191 774  
Hondartza, 10 - behea  
**20820 DEBA (Gipuzkoa)**  
mikeliturgintza@euskalnet.net  
www.mikeliturgintza.com

**A D**

**ASESORIA DEBA C.B.**  
JURIDIKOIA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA - HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617  
Edurne: 669 895 619

Tel.: 943 192 127  
HONDARTZA, 2 - BEHEA Fax: 943 192 482  
20820 DEBA (GIPUZKOA) ase.deba@telefonel.es

**atari**  
etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA  
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA  
Tel: 943192263  
www.atarideba.com

**Lizaso**  
Autozerbitzua

Lersundi kalea, 21  
Tlfnoa: 943 19 27 29

**ITXAS GAIN**  
Taberna  
ITXAS GAIN

Hondartza ondoan  
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576  
20820 DEBA

**oskarbi**

Menua  
Ogitartekoak  
Plater Konbinatuak

Lersundi kalea, 9  
Tel. 943 029 488 - 618 644 014  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

**ALBIZU**  
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

**IGARZA**  
TABERNA

Ostolaza, 5  
DEBA  
Tel.: 943 191 197

**IZENBE**

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

**GENOVEVA**  
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Telf.: 943 191 818

**ZALBURDI**

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

**MAZZANTINI**  
TABERNA

Sokagin, 7 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel. 943 192 422

**BOKATAK - PINTXOAK**  
ETA GIRO ONA

**Informática** **Elektronika**  
Tresneria informatikoa Osagai elektronikak

Maxpe kalea, 7 - Behea  
20820 DEBA

Tel: 943 19 17 83  
Fax: 943 19 18 36  
Mugikorra: 686 939 601

e-mail: jk@informatikajelektronika.e.telefonica.net

**RAIKETAK S.L.**  
**SAGARMIÑA**

Hondartza, 3-4 bajo • Apartado, 31  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel./Fax: 943 192 249  
Mugikorrak: 629 639 685 / 629 641 940  
sagarmina@sagarmina.com  
www.sagarmina.com



Ifar kalea, 12 behea  
20820 Deba

Telefonoa: 943 19 13 83  
Aldizkariaren e-maila:  
[berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com)  
Elkartearen e-maila:  
[koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com)

**Argitaratzailea:**

Zuhatza Euskara Elkarte

**Erredakzio taldea:**

Goizane Aizpurua,  
Mikel Aizpurua,  
Koldo Aperribai,  
Izaro Aulestiarte,  
Nagore Dorronsoro,  
Lukax Dorronsoro,  
Xabier Laka,  
Migel M.Lekube (Lutxo)  
Ina Oartzabal eta  
Eider Zulaika

**Azaleko irudia:**

Erredakzio taldea

**Publizitatea:**

Joseba Escudero eta  
Juan Mari Gurrutxaga  
Tlfnoa.: 943 19 13 83  
943 19 26 94

**Logotipoaren diseinua:**

Iñaki Elosua

**Banaketa arduraduna:**

Juanma Oartzabal

**Inprimategia:**

Euskalinpri

**Tirada:**

1.400 ale

**Lege gordailua:**

SS-246-2009

ISSN 2171-7656

**OHARRA:**

*Berriketan-ek* ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTU-NAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 25 lerro izan beharko ditu eta [berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com) helbidera bidali beharko dira, hilabeteko azken astelehena baino lehen.

**ARGITARATZAILEAK**



**LAGUNTZAILEAK**



Debako Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia



**KOLABORAZIOLA:** Gilen Garcia, "Krisiaz eta klase kontzientziaz". **05 ELKARRIZKETA:** Mainer Zubikarai. **07 BERRIKETAN GAZTEA:** Kanbokoak Deban, ikasbidaia... **11-14 ALBISTEAK:** Itziarko IV. Erromeria Eguna. **15 LABURRAK:**

Debako XXVI. Antzerki Astea antolatu du GOAZ Antzerki Taldeak datorren maiatzaren 25etik ekainaren 2ra. **08-09**

Gipuzkoako Hiru Txirlo Bolo Txapelketa, Amaiak Baten lorpen handiena oroitzeke ekimenak, Akerzulo taldearen proiektuak.... **16-17 ZERBITZUAK: 18**

**EGIN ZAITEZ BAZKIDE ZUHATZAN**



260 bazkide gara dagoeneko Zuhatzan; eskerrik asko denei.



943 19 13 83

40.000 € inguruko aurrekontua du Zuhatzak 2012. urterako.



*Berriketan*-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: [berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com) edo [koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com).

## Udalbatzak Udal Euskaltegien inguruan sortu diren murrizketak salatu ditu

Debako Udalbatzak osoko bilkuran aho batez onartu du Jaurlaritzari eta HABEri helaraztea, udal euskaltegiek azken urte hauetan bizi duten murrizketa dela eta, Udal honek onartutako adierazpena.

Badira urteak Udal Euskaltegiak diru-laguntza gutxiago jasotzen ari direla; murrizketak Udal Euskaltegi batzuetan handiak izan dira eta udalek, euskaltegi horien biziraupena ziurtatu nahi dutelako, diru murrizketen zama euren gain hartu behar izan dute.

Argi dago, auzi honetan, Euskara Nazio Hizkuntza dela gakoa. Jaurlaritzari eta PSEren gobernuaren hizkuntza politikari erantzuten diola HABEren diru murrizketak; beraiena den ardurari uko egin eta udalen bizkar utzi nahi dute zama.

Horren haritik, esan beharra dago Helduen Euskalduntzean eta

Alfabetatzean Jaurlaritzak eta HABEk dutela ardura garbia; Udal Euskaltegien finantziazioa euren gain hartu behar dute, publikotasuna ziurtatu eta doakotasunaren bidean urratsak eman. Udalen ardura politikoa, normalizazioa helburu duten egitasmo eta ekintzak sustatzea da.

Horiek horrela, Debako Udalak honako puntu hauetan oinarritutako adierazpena onartu du:

1.- Udal Euskaltegien inguruan sortu den auzi honen erantzule eta arduradun politikoak Jaurlaritza eta HABE dira. Urteetan zehar Udal Euskaltegiek egindako lana kontuan izanik, haien etorkizuna arriskuan jartzea ezin dugu onartu.

2.- Udal honetatik Jaurlaritzari eta HABEri eskatzen diegu, behar diren baliabide ekonomiko eta politikoak jar-

tzeko, dagokien arduraz erantzuteko, eta zama ekonomikoa udalen gain ez uzteko.

3.- Ezin dugu euskarari eraso txikiarik egiten utzi eta onartu. Euskal Herri osoari eta bereziki euskararen aldeko mugimenduari, euskararen aurkako erasoei aurre egiteko deia luzatu nahi diegu.

4.- Debako Udalak, Udal Euskaltegien auziari, ardura politikoa osoz eta herritarrekin batera erantzuteko konpromisoa hartzen du. Helduen Euskalduntze Alfabetatzearen mugimenduak atzerapenik izan ez dezan, behar diren neurriak hartuz.

5.- Erabaki honen berri Jaurlaritzari, HABEri, Euskalgintzari eta herri osoari emango zaio eta bakoitzari arduraz jokatzeko eskatzen diegu.

*Debako Udalbatza*

## ARGAZKI ZAHARRA

### 1925eko Asentzio eguneko erromerian



*Iturria: Egun Zaharretako Deba liburua.*

Gaur egun galtzeko bidean doan Asentzio eguneko erromeria egiten zen, ohitura zenez. Neskatxek gurutzeraino heldurik errosario santua erreztatzen zuten, mutilek kanpoan bazkaldurik eguna osatzen zuten artean. Eta ilunabarean erromeria egiten zen.

1925 inguruan harturiko argazkian, besteak beste, honako hauek ageri dira, ezkerretik eskuinera eta goitik behera: Juan Lizarraga (zutik), Faustina Aizpurua, Fernando Trueba eta Maria Idiaquez; Jose Manuel Esnaola "Naparra", Juan Jose Garate, Emiliano Idiaquez; Bautista Aldalur, Juan Urbina, Jose Unanue "Olano", Jose Maria Ostolaza "Oloki", Prudencio Arrizabalaga "Txarturi" eta Nicolas Idiaquez; Jose Maria Unanue "Ormaetxe", Domingo Aguirre "Andutzene", Patxiko "Motza", Martin "Txiki", Luis Echeverria eta Luis Garate.

Pilar Aguinagaldek emana.





## KRISIAZ ETA KLASE KONTZIENTZIAZ

Duela lau urte zurrumurrua zirudien krisiak gaur egungo errealitatea irauli du guztiz. 2008. urtean krisi "ekonomiko" honen lehendabiziko berriak izatetik, 2012an estatu guztietako agenden nondik norakoak zehazten dituen egoera batera igaro gara. Ekonomia, krisi honen adierazle nabarmenena izan da, hala ere, ez dugu irakurketa horrekin konformatu behar; izan ere, sistema kapitalistak berak, bere osotasunean, ekarri gaitu gaur egungo testuinguru lazgarri honetara.

Langileriak zehazki, baina jendarteak oro har, denbora gehiegi behar izan du sistemaren mehatxua zein mailatarainokoa den ikusi ahal izateko. Horren ondorio zuzena da, sistema kapitalistaren gidariek izan duten maniobra askatasuna; langileria osoaren eskubideak kolpatzeko aukera utzi diegularik.

Berandu bada ere, langileriak bere borrokarako tresneria guztia martxan jarri du eta horren adierazlerik esanguratsuena martxoaren 29an burutu zen greba orokorra izan da. Greba horrek, egoera politiko zein ekonomikoaren inguruko eztabaida herriratu eta mahai gainean jarri du, herritar orok sorrarazitako eztabaidan parte hartu duelarik. Grebaren arrakasta, hala ere, ez da greba

egunean soilik antzeman; langileek galdurik zutela zirudien klase kontzientzia berreskuratzeko, ikasleak borrokara lotzeko eta oro har elkartasuna bezalako baloreak lantzeko balio izan du.

Laster beste greba bat izango dugu Euskal Herrian espainiar estatuko gobernua sektore publikoan aurrera eraman nahi dituen bidegabekeriak direla eta.

Erasoen aurrean erantzuteko garaia den honetan langileriak batuta egon behar du; elkartasuna da langileriak duen aktiborik indartsuena eta garrantzitsuena, izan ere, gehiengo bat osatzen duen heinean elkarturik egoiteak are indartsuago bilakatzen du. Langile kontzientzia bereganatzeak, mehatxuak aurreikustea eta horien aurrean lehenago eta hobeki erantzutea dakar.

Azken hamarkadetan sistemak langileen kontzientzian eragiteko erabilitako trikimailuek min handia eragin dute, izan ere, duela mende bat odolez borrokaturiko eskubideak, oso garesti eskuratu zirenak, hamar urteren buruan hutsaldu nahi dituzte. Badirudi guk geuk borrokatu behar dugula XX. mendean zehar eskuratu zituzten eskubide berberengatik. Horiek eskuratu eta hobetze bidean, ekin diezaiozun ba iraultzari!



## Gurean ere Zero Zabor

Hondakinen kudeaketa eztabaidagai izaten ari da Gipuzkoan azken urtean. Etxean sortzen dugunarekin zer egin, nola kudeatu, nora bota...

Arazo handia dugu zaborrarekin, neurririk gabe sortu eta sortu gabiltzalako eta hondakinak mendi zuloetan botatzea edota errauste planta batera eramatea konponbide baino gehiago arazo delako.

“Zabortegi eta erraustegiak kentzen joatearen alde egiten dugu apustu, hondakinak tratatzeko modu ekologikoagoak lehenetsiz. Baliabideak era efizientean erabiltzearen alde gaude eta posible den kasuetan horiek berrerabiltzearen alde. Birziklatu ala konposta daitezkeen hondakinak ez erraustea eskatzen dugu. Gure hondakinetak materialen balioa berreskuratzea behar dugu gaika bilduz eta birziklatuz. Produktuen diseinuan eragin beharra dago, horien birziklapena eta konponketa posible egin, eta biziraupena luzatzeko. Hondakinak baliabide izatea sustatu behar da zerga politikaren bidez, eta hauek zabor bihurtzea zaildu”.

Horiek ez dira gure hitzak. Europako Parlamentuko Ingurumen Batzordeak onartutako txostenean esaten direnak dira. Guk gure egiten ditugu, Zero Zabor filosofiarekin bete-betean bat egiten dutelako. Gipuzkoa bidegurutze batean dago hondakinen kudeaketaren gaian. Hondakinek, erabiltzen ditugun produktuen hondarrek, alegia, arazo izaten segi behar duten ala aukera bihurtzen ditugun dago jokoan.

Errauste planta eraikiz gero hamarkadak beharko dira inbertitutako ehunka milioi euroak ordaintzeko. Horrek errauste plantarentzat zaborra sortzea behartuko gintuzke epe horretan edo, gainerakoan, gastuak bikoiztera. Gure hondakinak zabor toxiko bihurtzeak ez du arazoa konpontzen, larriagotu baizik. Gainera, errausketak ez du zaborra desgerrarazten. Erraustegitik urtero aterako lirartekeen 100.000 tona zabor toxikoentzat zabortegiak beharko genituzke.

Beste bidea, Europatik datorrena, guk proposatzen duguna da, arrazionalitatea eta konponbidearena. Hondakinak materialez osatuta daude. Horiek balioa daukate. Baliabideak suntsitu eta arazo bihurtzeak ez dauka zentzurik. Munduan zehar Zero Zabor politiketan aplikatzen diren neurriak gurera ekarri behar ditugu. Hondakinetatik arazoak sortzeari utzi eta aukerak sortu behar ditugu. Gauza jakina da ekonomiari on egiten diola baliabideak ondo probesteak. Sektorre ekonomiko oso bat eraiki daiteke berrerabilpenaren eta birziklapenaren inguruan, eta lanpostu mordoak sortu. Ez da, ez, gutxiesteko gauza bizi dugun krisi garaiotan.


Geroz eta gehiago gara Gipuzkoan arazoa eta irtenbidea zein diren garbi daukagun herritarrak. Geroz eta herri gehiagotan sortzen ari dira bide positiboan eragiteko Zero Zabor taldeak. Erraustegiaren proiektua atzera bota eta Zero Zabor politikak lehenbailehen abian jartzea lortu behar dugu, gaur egun dauden zabortegi

kutsakorrek ixteko. Administrazioei, herritarraren ongizatearen defentsan ausart izateko eskatzen diegu, guztion artean, Gipuzkoa, Zero Zabor lurraldea izatea lortuko dugulako.

**Itziar eta Deban ere bide horretan lanean arituko den mugimendua osatu nahi dugu. Maiatzean hainbat dokumental emanaldi antolatuko ditugu -hilaren 23an, adibidez, “Comprar, tirar, comprar” dokumentala ikusteko aukera izango da, Kultur Elkartearen, 19:30ean-, gaiak duen garrantziaz ohartarazi eta beste esperientzia batzuk ezagutzeko. Bestetik, maiatzaren 30ean Zero Zabor mugimendua osatzeko bilkura irekia egingo dugu Kultur Elkartearen, 19:30ean.**

Gaiari buruz informazio osatua [www.gipuzkoazz.com](http://www.gipuzkoazz.com) helbidean duzue.

*Debako Zero Zabor Taldea*



## Debako Gazte Asanbladako kideek Amaiurrera egindako irteera

Aurten Nafarroaren inbasio eta konkistatik 500 urte betetzen direla eta, Debako Gazte Asanbladako kideok nafar erresistentziaren ikur den Amaiurrera irteera egin genuen. Bertan iraganaren eta etorkizunaren arteko lotura nabarmendu zen, garai hartako kokapen historikoaren eta gaur egun bizi dugun egoera sozio-politikoaren arteko azalpenekin.

Eguraldia ez genuen lagun izan, baina ez zen oztopo izan omenaldiak aurrera egin zezan. Agurraren ondoren, Elizondorantz abiatu ginen bazkaltzera; egun osoan lez, bazkalostean ere ez zen giro onik eta musikarik falta izan. Azkenik, Debara abiatu ginen, gustura eta umore onean, baina eguna amaitzearen penaz. Gehiagotan errepikatzeko moduan!!

*Debako Gazte Asanblada*



*Unai Idiakenez*



## Maidar Zubikarai: "Pausoak emateko lortzen ari garen adostasuna da urtebeteko balantzearen alderdi positiboena"



*Urtebete pasa da Alternatiba Eraikitzen alderdiak alkatetza hartu zuenetik. Silverio Urkiri Beitia izendatu zuten alkate baina, urte hasieratik gaixotasun bajan dagoenez, Maida Zubikarai alkateordeari egokitu zaio haren funtzioak betetzea. Urtebete honetan egindako bidearen berri izan nahian, Udalera jo du oraingoan Berriketan-eko lantaldeak. Etorkizuneko erronkak ere izan ditugu hizpide elkarrizketa honetan.*

### Urtebete pasa da hauteskundeetatik. Zein egoeratan aurkitu zenuten Udala?

Denbora kosta zaigu udalaren egoeraren informazio osoa biltzea. Urte askotan esku berdinetan egon da eta egin diren gestio askoren eragina jasaten ari gara. Epaitegietan kasu asko ditugu, hirigintzarekin lotutakoak gehienak, eta horiek udalaren aurrekontuan eragin zuzena dute eta izango dute datozen urteetan. Udal langile batzuen kontratazioetan ere zuzendu beharreko asko azaldu dira, eta zuzentzeko neurriak hartzen ari gara jada. Egunerokoan, udalaren gorabeherak hobeto ezagutzen dituzten langileek pazientzia osoz lagundu gaituzte.

### Zer balantze egiten duzue udal gobernu berriaren lehenbiziko urteaz?

Egin nahiko genukeena baino gutxiago egin dugu; ez diot etsipenez, herrirako proiektu asko ditugula adierazteko baizik. Emandako pausoak emateko lortzen ari garen adostasuna da balantzearen alderdi positiboena. Aurrekontuak adostasun handiz onartu ditugu, gobernu batzordean lau alderdi gaude, eta Itziaroko tokiko erakunde txikia osatzeko elkarlanean ari gara, adostasunez onartu zen ikerketa bukatzearekin delarik. Arlo ezberdinetako elkarteekin ere bide berean saiatzen ari gara eta beren lana modu egokiagoan jarraitzeko Osioko lokalak horretara bideratu ditugu.

Bestetik, aurrekontua osatu eta urteko plangintza egiterakoan diru eskasiak ematen duen estutasuna da alderdirik negatiboena. Lehentasunetara iristeko ere motz gabiltza eta horrek liskarrak sortzen ditu.

### Krisi ekonomikoa denon ahotan dago. Zertan antzematen da Udalean?

Goragoko instituzioetan hartzen diren era-

bakiek eragin zuzena dute udalaren egoera ekonomikoan ere. Aurrekontuak osatzera-koan guk bi premisa lehenetsi ditugu: langileen baldintzak mantentzea eta herritarrei ematen zaizkien zerbitzuak hobetzen jarraitzeko ahalegina egitea. Arlo desberdinetako diru partidak jaitzi ditugu kasu batzuetan eta horrek gestio lan hobea egitera behartzen gaitu. Zenbakitan ikusten da argien egoera: 2009an, adibidez, udal aurrekontua 7.244.608 eurokoa zen eta 2012an, berriz, 6.828.408 eurokoa.

### Parte-hartzea izan zen Alternatiba Eraikitzen-en ikurra. Nola ari da bideratzen?

Herritarrek udaleko erabakietan eragina izan ahal izateko lehen pausoa udalaren egoeraren ezagutza dela uste dugu. Horretarako, pasa den urtearen bukaeran, udal aurrekontuen harira, diru kontuak aurkeztu genituen herritar eta talde desberdinen aurrean eginiko bileretan. Guk udaleko kontuak azaltzearekin batera, talde eta eragileek beraiek dituzten lehentasunak helarazi dizkigute eta elkarlanean irtenbideak bilatzen saiatzen ari gara.

Bestalde, udal aurrekontuetan, aldizkarirako partida ere sartu genuen, herritarrek informatuta egoteko eta parte-hartzea sustatzeko tresna garrantzitsua delako; lehenengo alea laster edukiko dugu esku artean.

### Hondakinen kudeaketa eztabaidagai dago Gipuzkoan. Zer berri Deban?

Gipuzkoan arazo handia dugu hondakinekin eta Diputazioak nahiz udal gehienok arazoaren erroa jo eta konpontzeko hautua egin dugu. Birziklatzeko aukera izanda, hondakinak erraustegira eramateak arazoa handitu baino ez duela egiten uste dugu. Hondakinen bilketan emaitzarik onenak ematen ari den sistema atez atekoa da gaur

egun eta guk ere sistema hori martxan dagoen herrietako birziklapen maila izan nahi dugu. Gaur egun, gure eskualdean hondakinen %22-23 besterik ez da birziklatzen eta herri batzuk %80tik gorako emaitzak lortzen ari dira. Maiatza eta ekainean bilera informatiboak antolatzen ari gara herritarrek sistema ezagutu eta beren kezka eta galderak plazaratu ditzaten. Atez ateko sistema ezagutzera bidaia bat ere antolatuko dugu, bertatik bertara ezagutzeko.

### Elizburu-Amillaga, Osio... Etxebizitza proiektu handiak zer egoeratan daude?

Elizburun pausoak ematen ari gara. Promotoreen aldetik etxebizitza libreak eraikitzeko interesa dago eta guk lehen fasetik hasita tasatuak ere eraikitzeko baldintza jarri dugu. Aurreko legealdian onartutako gunea da eta ez zen babestutako etxebizitzarik aurreikusi hemen. Osio poli-kiago doa; legedia beteko duen planeamentu aukerak aztertzen ari gara, eta hemen zerbait egitekotan alokairu soziala oinarri izatea nahi genuke, nahiz eta finantziario lortzeko garai onenak ez diren.

### San Roke jaien iraupena, zezenketa kopurua, aurrekontuaren murrizketa... Nola dago kontu hori?

Jaietako aurrekontua 20.000 eurotan murriztea erabaki genuen urtarrilean. Hori kontuan izanda, jai egunen kopurua murriztu eta egunak indartsuagoak izateko proposamena aurkeztu diegu guk jai batzordeari eta beste alderdiei. Batzordean eta alderdi politikoen aldetik egun kopurua mantentzea adostu dugu eta hala egingo da. Zezenketei dagokionez, udalak bi zezenketa ordaindu ditu orain arte, pasa den urtean izan ezik, eta horrela izaten jarraitzea adostu dugu alderdi guztien artean.

# Badator XXVI. Antzerki Astea!!



**Maiatzak 25, ostirala:**  
Aldats pilotalekuan,  
22:30ean (5 euro).

**"ESTEREO"** Ane  
Gaztañaga. Irun.

Publikoa eta pribatuaren arteko joan-etorria. Erakutsi eta ezkututzen denaren artekoa. Maskulinitatea eta feminitatearen arteko dantza. Norberaren mugak hausnartu eta haratago joateko beharra. Barruak eta kanpoak begiratzekoa. Hainbat gauza zalantzan jartzen ditugu lan honetan. Ateak zabalik daude, nahi duenak begiratu dezala.



**Maiatzak 26, larunbata:**  
Aldats pilotalekuan,  
22:30ean (5 euro).

**"ISPILUA"** Aldatzen laguntzen Antzerki Taldea (Ion Martinez eta Saioa Arroyo). Donostia.

Drama eta komedia uztartzen dituen antzezlan bat da. Bi aktore, eszenatikian, antzezlan bat nola prestatzen ari diren ikusten da. Antzezlanean, gaur egungo gizartearen bikoteak askotan nola elkartzen diren ikusten da, larunbat gau batean elkartzen direnetik, bere bizitzak erabat zuzenduta ikusi arte. Maitasunari buruzko reflexioa da, non ikusleari erakutsi nahi diogun, erlatzioak, aurrera egiteko eran, ondo pentsatu eta gure barnetik benetan desio ditugun erabakiak izan behar direla.



**Maiatzak 27, igandea:**  
Herriko kaleetan zehar,  
13:00etan.

**"SORGINAK"** Goloka  
Antzerki Taldea (Bilbo).

Hiru sorgin, ipotx bat eta gurditxoan daramaten marmita handi batek osatzen dute kalejira hau. Gurditxoan, beraien gantzuk, musika eta konjuru sekretua egiteko behar diren osagai guztiak dituzte. Guztiak, musikaz blai, kalean zehar dantzan ibiliko dira... magiak irauten duen bitartean.



**Maiatzak 29, asteartea:**  
GOAZ Aretoan, 10:30ean  
eta 11:30ean.

**"ESTITXU ZORIONTSU"**  
Aizamako Eskola  
Antzerkia. Aizama.

Herrikka batean, Estitxu izeneko neska bat jaio zen. Gurasoek haziko zela uste zuten baina ez zen horrela suertatu eta ondorioz eskolan denek iseka egiten zioten. Josune irakasleak, gurasoekin bildu eta, Jimenez medikuaren berri eman zien. Honek, nahi adina hazteko, bazuen indizio miragarri bat; baina ordainetan dirutza eskatzen zuen. Horrela Estitxuri katu bat agertu zitzaion; eta honek bakoitza den bezalakoa izateaz eta onartzearen garrantziaz hitz egin zion. Zer egingo du Estitxuk? Onartuko ote du bere egoera? Horra hor gakoa.





# Maiatzaren 25etik ekainaren 2ra ospatuko da, GOAZ Antzerki Taldearen eskutik

Herri txiki samarra da Deba; baina, gauza handiak egiten ere badaki urtean zehar kultur arloan; hiriburutik urruti antzera gaudenez, prentsan, salbuespenak salbuespen, merezi duten tokia ematen ez bazaie ere. Horietakoa dela uste dugu, urtero, Udalaren diru-laguntzarekin, GOAZ Antzerki Taldeak antolatzen duen ANTZER-

KI ASTEA.

Bai! XXVI. ASTEA. Bada zerbait ala ez? Gainera, gogoan izan behar dugu, krisialdi bete-betean gaudenez, ausardia berezia behar dela honi heltzeko. Izan dugu kezkarik, baina aurrera goaz, Udala lagun. Hemen duzue prestatu dugun egitaraua:



**Maiatzak 30, asteazkena:**  
Aldats pilotalekuan,  
17:00etan (3 euro).

**"SHOW BERRIA PRESTATZEN"** Korri, Xalto eta Brinko (Lezo).

Eguraldi ona egiten duenez, pailazoek mendira egun pasa joatea erabaki dute. Beren bila joan behar zuen furgonetari gorpila zulatu zaio eta denbora nolabait bete beharrean aurkitu dira. Show berria prestatzeari ekingo diote publikoaren laguntza zuzenarekin, musika, abestiak, efektuak, dantza eta txoro-kantekin.



**Ekainak 1, ostirala:**  
Aldats pilotalekuan,  
22:30ean (5 euro).

**"KABARETA!"** Oratx Antzerki Taldea. Lezo.

Gainbehera etorritako antzerki talde batek bere kabaret emanaldia aurkezten du. Argiak erdipurdika, koloregabetutako distirak, urrututako lumak, oinetako zaharrak... eta guztia, taldearen zuzendarari esker; pertsonen sentimenduen eta ikuskizunaren beraren gainetik, dirua baitu helburu. Pertsonaiak eta istorioak, eszenatokiaren taula eta argi artean. Ongi etorri gure "kabaretera": dantzak, kantak, musika ikuskizunak, umorea eta dibertimendu asko. Gora Oihala!



**Ekainak 2, larunbata:**  
Itziaroko Frontoian,  
22:30ean (5 euro).

**"KONTXESI DETEKTIBEA ELURRETAN"** GOAZ Antzerki Taldea (Deba).

Kontxesi Detektibea Pirinio aldera doa, eskiak hartuta, bere seme Bixentikorekin. Siresan, Ebaristo eta Justinarenean, hartu dute ostatu. Egoera larria bizi dutela inguru haietan Von Saltxitxen aberats alemaniarra dela medio, kontaktu dio Ebaristok. Kontxesi, detektibea denez, iritsi orduko auzian leporaino sartua aurkitzen da. Larria da egoera, bai. Baina, komedia-giro bitxian lortzen dute korapiloa askatzea.

## HOGEITA SEIGARRENA

**Antzerki astea Debak Nahi duenez goza, Hogeita seigarrena GOAZek du osa, Krisian ere Udalak Emanik babesa; Kultura baitu herriak Bere bizi arnasa.**

**Talde bikainak datoz, Ez gabiltz txantxetan; Harrituko gaituzte Oraingo honetan: Gazte, zahar eta haurrek, ALDATSen mailetan, Txalo galantak joko Dituzte benetan**



## Ostolaza Dokumentu Funtsa ezagutzeko aukera dute herritarrek

**Berriketan** aldizkariaren azken alean iragarri genuen bezalaxe, dagoeneko Ostolaza Dokumentu Funtsa ezagutzeko aukera dute herritarrek, liburutegiko dokumentuak maileguan hartzeko edo eraikinean bertan irakurtzeko aukera eskaintzen baitu Kultur Elkartek. Ostegunero egongo da zabalik, honako ordutegian: 10:30-13:30/16:30-19:30.


### Eduki bibliografikoa:

Ostolaza Dokumentu Funtsak 12.348 bolumen dauzka guztira, eta bolumen horiek bost katalogotan edo bildumetan sailkatuta daude:

**Orokorra:** 1960. urtetik aurrera editatutako liburuak daude bertan. Bildumarik zabalena da, 6.702 bolumenekin. Materiak eta literatura hartzen ditu bere baitan.

**Bilduma Zaharra:** gai ezberdineko 3.209 bolumenek osatzen dute bilduma. Liburu zaharrenak XVII. eta XVIII. mende bitartekoak dira.

**Euskal Herria:** bildumarik garrantzitsuenetako bat da, eta guztira 1.982 bolumen dauzka. Eduki anitzeko



argitalpen ezberdinak ditu oinarrian, guztiak ere euskal kultura ezagutzeko baliagarriak. Besteak beste, bertsolari-tzari buruzko bilduma garrantzitsuak ditu bere baitan, eta baita eleberria, poesia, ipuina edo antzerkigintzari lotutako ekoizpen literario esanguratsua ere –maileguan mila bolumen inguru eraman daitezke, euskaraz idatzitakoak–.

**Bildumak:** kontsultatzeko bil-

dumak dira, izaera orokorrekoak (entziklopediak, hiztegiak...). 384 bolumen ditu.

**Deba:** gure herriarekin zerikusia duten liburuak dira oro har, edota Debako autoreek edo elkarrekin editatutakoak. Bilduma honetan daude, adibidez, "Deba" aldizkaria nahiz Anes Arrinda, Patxi eta Roque Aldabaldetrecu edo Rafael Castellanoren obrak.

## Euskal Kostaldeko Geoparkea; lantalde berria, maiztetik aurrera, Debako Turismo Bulegoan

2010ean, Deba, Mutriku eta Zumaiak, Euskal Kostaldeko Geoparkea sortu eta UNESCOk babesten duen Europako eta Munduko Geoparkeen Sarean sartzea lortu genuen, gure natur eta kultur balio apartei esker.

Ondare geologikoaren eta naturalaren iraunkortasunari balioa emanez tokiko garapena sustatzea da Geoparkeen zeregin nagusia. Lekuaren eta leku horretako ondarearen eta biztanleen arteko zubi izan nahi du; pertsonak bere ingurumenarekin lotzeko elementu bat. Beste modu batean esanda, biztanleak lurraldeko balioez jabetzea eta lurraldea osotasunean indarberritzeko lanetan parte hartzea du xede.

Helburuak lortzeko beharrezkoak diren estrategiak martxan jartzeko Geogarapen elkartea sortu genuen. Egun, elkarteko bazkide dira Deba, Mutriku eta Zumaiako udalak, Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, UNESCO Etxea, Aranzadi Zientzia Elkartea, Debemen, Urkome, Urola Kostako mankomunitatea eta Debege-sa. Azken hilabeteotan, gainera, Geogarapeneko lantaldea osatu berri dugu.



Deba, Mutriku eta Zumaiak osatzen duten Euskal Kostaldeko Geoparkearen egoitza Debako Turismo Bulegoa da; beraz, maiztasun geroztik, Geogarapeneko lantaldearen lantokia udal turismo bulegoan dago kokatuta.

Geoparkeari buruzko informazio gehiago [www.geoparkea.com](http://www.geoparkea.com) helbidean daukazu; bertan Flysch and Karst Experience programako bisita gidatuen informazioa ere aurki daiteke.

*Ingurumen, Turismo eta Geoparke Batzordea*

## Udal erakusketa gela Agirre Jauregia

Ifar kaleko erakusketa gelak zortzi urtez iraun du zabalik, Turismo Bulegoarekin batera, 2004ko apirilean ireki baitzen. Bertan, herriko kultur talde eta artista gehientsuenen lanak izan ditugu ikusgai; kanpoko talde eta artistek ere erabili dute. **Guztira 168 erakusketa burutu dira eta 35.825 bisitari izan ditu.** Guztioi mila esker!

Turismo Bulegoan Euskal Kostaldeko Geoparkearen egoitza izango dugu hemendik aurrera. Hori dela eta Debako Udalak erakusketa gela berri bat zabaldu du Agirre Jauregian. Datoren egunetan, haur margo lehiaketako lanak eta Haitz Haundi margolari taldeko eta Arte Eskolako ikasturte amaierako lanak izango ditugu ikusgai. Azpiegitura berri hau erabili nahi duten elkarre eta artistek Udaleko Kultura Sailera zuzendu behar dituzte euren eskaerak.

*Turismo Bulegoa*





# BERRIKETA GAZTEA

2012ko maiatza  
Mendata BHI-ko Prentsa Tailerlean Sortua.

## KANBOKOAK DEBAN



Aurreko hilabetean Debakoak Kanbora egindako irteeraren berri eman genizuen, eta oraingoan, Kanbokoak Deban egindako egonaldiaren berri emango dizuegu. Baina, lehenik eta behin, Debako Udalarri eta Kanboko Herriko Etxeari eskerrak eman nahi dizkiegu, batetik, elkartrukea egiteko diru-laguntza eman digutelako, eta bestetik, harrera bikaina egin zigutelako. Hona hemen elkartrukearen bigarren zatia-ri buruzko informazioa:

Martxoaren 26an, elkartrukearekin jarraituz, haiek Debara etorri ziren euskara lantzen jarraituz. 9:30ak aldera iritsi ziren Pasealeku Estalira eta jarraian, 3. mailako ikasleak autobusean sartu, eta Lasturrera joan ziren. Lasturren, Goikola baserria bisitatu zuten, eta bertan hainbat gauza erakutsi zizkieten: lehenik, gazta nola egiten den azaldu zien bertako nagusiak, eta, ondoren, artilearen lanketaren berri izateko aukera izan zuten. Gero, bakoitzak bere taloa egin eta gus-tura jan zuten txistorrarekin batera. Bazkal ondoren,

giro ederra sortu zen ikasle eta irakasleen artean: trikita-xa, pandero eta euskal abestiek ginrotu zuten Lastur. Jarraian Institutura etorri ziren. Ikastetxean ongietorria egin zieten 3. mailako ikasle guztiak. Ongietorri horretan, lehenik Agurra dantzatu zitzaizkien; gero, bertso batzuk kantatu zituzten, Psit dantza dantzatu zuten, eta bukatzeko, sokatira egin zuten. Sari bezala, kartoizko domina bat banatu zitzaion bakoitzari oroigarri.

Martxoaren 27an, 9etan Zumaiara joan ziren autobusez. Bertan, irteera geologikoa egin zuten, Flyscharen nondik norakoak ikusiz. Ondoren, itsasontzian buelta bat eman zuten lehen oinez ikusitakoa itsasontziz ikusteko, eta gero bazkaltzera joan ziren. Zumaiaren lasai egon ziren elkarrekin, agurtzeko ordua iritsi zen arte.

Oso esperientzia polita iruditu zitzaizkien, eta apirilean berriz elkartzeko plana egin zuten. Elkarren arteko harremana oso ona izan denez, eskolatik kanpo ere euskara erabiltzen jarraitu nahi dute.



elkarrizketa

Azkenean, aurten ere 4.DBHkoek ikasbidaia egi-  
tea lortu dute. Horren berri jakiteko Aitor  
Zubikarai eta Maider Telleria elkarrizketatu ditu-  
gu. Jarraian, argazkiak ikusiz goza dezakezue.

## “Denok batera primeran konpondu ginen”



### **Noiz eta nora joan zineten ikasbidaiara?**

Martxoak 26tik 30era joan ginen Huescara eta Tarragonara (Saloura).

### **Denok joan al zineten?**

Ez, batzuk hemen geratu ziren.

### **Zer ekintza egin zenituzten?**

Rafting eta kanoi jaitsiera egin genituen Huescan. Katalunian Port Aventuran ibili ginen, eta Tarragona eta Bartzelona bisitatzera ere joan ginen.

### **Lan asko egin behar izan al zenuten dirua lortzeko?**

Bai, gogorra izan zen.

### **Antolakuntzan ongi moldatu al zineten?**

Bai, lanerako elkar ulertzen jakin genuen.

### **Ikastetxe honetatik pasatzen diren ikasle guztiak doaz ikasbidaiara. Aholkuren bat haientzat?**

Bai, lan asko egin beharra dago. Beraz, gogoia jar-  
tzea garrantzitsua da, eta prest egon behar da  
edo zertarako.

### **Egin zenuten lan guztiaren truke egindako bidaia ondo dagoela iruditzen al zaizue?**

Bai, merezi genuen.

### **Aurten, beste urteetan ez bezala, Saloura joan zarete. Zer arrazoiengatik?**

Diru kontuak. Hala ere, pozik joan ginen.

### **Zer moduz pasatu zenuten?**

Oso oso ondo! Denok batera primeran konpondu  
ginen, barre asko egin genuen, eta gauean giro  
ona zegoen.



# QUITENGO IKASBIDAIA, IRUDITAN



## LITERATUR ETA MARRAZKETA JARDUERAK



Alde batetik, **San Balentin Eguna** zela eta, Amodiozko Gutunen Lehiaketa antolatu zen ikastetxean. Jarraian dituzue irabazleak:

### **Irakasleek hautatuak:**

Gaztelaniaz: Udane Oiartzabal eta Maialen Tellabide.

Euskaraz: Miren Aizpurua eta Alaitz Escudero.

### **Ikasleek hautatuak:**

Gaztelaniaz: Itziar Larramendi.

Euskaraz: Julen Monasterio eta

Iñaki Amilleta.

**Marrazketan**, berriz, Maialen Tellabide eta Asier Badiola izan dira irabazleak.

Bestetik, pasa den apirilaren 23an Liburuaren Eguna ere ospatu zen. Horren harira liburu-erakusketa bat egon zen; bertan, ikasle bakoitzak bere liburu gogokoenak aurkeztu zituen eta, gainera, geletan irakurketa saiok ere antolatu ziren.



## INKESTA

**Oraingo honetan, komunikatzeko era berriei buruz hitz egingo dugu. Agian, lehengo gutunek indarra galdu dute, eta gazteak beste era batera komunikatzen dira gaur egun.**

- 1.- Ba al duzu Tuentia? Eta Facebooka?
- 2.- Asteazken zehar zenbat denbora igarotzen duzu sare horietan?
- 3.- Zure ustez, Tuentian edo Facebooken ibiltzea ona ala txarra da?
- 4.- Tuentia aurrerapen handia izan dela uste duzu? Zergatik?
- 5.- Zure ustez, 2015ean jendeak Tuentia erabiliko du, edo beste sare berri bat egongo ote da ordurako?



### Sara Arrizabalaga:

- 1.- Bai, biak ditut.
- 2.- Zortzi ordu gutxi gorabehera.
- 3.- Ona dela iruditzen zait, jendea ezagutzen dizulako.
- 4.- Bai, aurrerapen handia izan da, errazagoa baita jendearekin hitz egitea.
- 5.- Beste sare berriren bat egongo dela pentsatzen dut, baina Tuentia erabiltzen ere jarraituko dugu.



### Mainer Telleria:

- 1.- Tuentia bai, baina bestea ez.
- 2.- Ziur ez dakit, baina bost ordu baino gehiago egoten naiz asteazken.
- 3.- Ona, lagunekin hitz egin dezakezulako.
- 4.- Bai, jende askok daukalako eta kanpoko jendearekin hitz egin dezakezulako.
- 5.- Beste sarereren bat egongo da, baina Tuentia erabiltzen jarraituko da.



### Naiara Mantzidor:

- 1.- Bai, biak ditut.
- 2.- Bi orduz aritzen naiz, gutxi gorabehera.
- 3.- Ona dela uste dut, lagunekin hitz egiteko balio du.
- 4.- Bai, baina ez dakit zergatik.
- 5.- Nire ustez, Tuentia erabiliko da.



### Asier Badiola:

- 1.- Bai, biak ditut.
- 2.- Bost edo sei orduz aritzen naiz.
- 3.- Ona dela uste dut, jendearekin hitz egin ahal izateko.
- 4.- Bai, ez dakit zergatik.
- 5.- Sare berri bat asmatuko da, baina nire ustez Tuentia erabiltzen jarraituko da.



### Aixa Lopez:

- 1.- Tuentia badut, baina Facebooka ez.
- 2.- Zortzi ordu, gutxi gorabehera.
- 3.- Bai, lagunekin hitz egiteko.
- 4.- Bai. Ez dakit.
- 5.- Beste sare bat asmatuko dute.



### Jon Albizu:

- 1.- Bai, biak ditut.
- 2.- Bi ordu, gutxi gorabehera.
- 3.- Ondo iruditzen zait, lagunekin hitz egiteko.
- 4.- Bai. Ez dakit.
- 5.- Bai, beste zerbaite asmatuko dute.



### Mattin Osa:

- 1.- Tuentia bai, baina Facebooka ez, eta ez dut eduki nahi.
- 2.- Hiru ordu asteazken.
- 3.- Txarra, arrazoi asko daude.
- 4.- Ez, ez da izan aurrerapen handia; Tuentia erabili gabe gaitasun berdinberdinak ditut jendea ezagutzeko.
- 5.- Espero dut sare berririk ez egotea, eta 2015erako Tuentia ere desagertzea.



### Iñigo Egaña:

- 1.- Biak ditut, baina Facebooka ez dut erabiltzen.
- 2.- Oso gutxi ibiltzen naiz, ordu bat edo bi.
- 3.- Ona da, lagunekin gelditzeko.
- 4.- Ez, ez dut uste aurrerapen handia izan denik, jendeak ez duelako gehiegi erabiltzen.
- 5.- Beste sare bat aterako dute.

**LAGUNTZAILEAK: LEIRE ALBERDI ETA NEREA AGIRREGABIRIA**

### LAGUNTZAILEAK:



### BABESLEAK:



Debako Udala



### PRENTSA TALERRA 2011-2012

Nerea Agirregabiria	Ane Baroja
Leire Alberdi	Alaitz Escudero
Sara Anton	Ena Esmoris
Ainhoa Azkarate	

Koordinatzailea: Kontxi Bengoetxea



## Itziarko Erromeria Eguna, urtez urte sendotzen



Laugarrenez antolatu du Erromeria Eguna Andutz Itziarko Kultur Taldeak. Maiatzaren 5ean, ohiko egitarauari jarraituz kalejira eta hamaiketakoa izan ziren goizean, eta bazkaria eguerdian. Ondoren erromeria plazan eta baita afalondoren ere.

Kalejiran Hernaniko dultzaineroak, albokariak, txistulariak eta fanfarrea, Zubietako joaldunak eta trikitilariak (Gari eta Iñaki, Tapia eta Leturia, Jagoba Uranga eta Maddalen Arzallus eta Elustondo anai-arrebak) jardun ziren Itziarko kaleak alaitzen.

Ia 400 lagun elkartu ziren frontoian bazkaritarako, haur eta gazte, zahar eta heldu. Eguraldi txarra iragarrita egonda ere, inguruko herrietatik ere jende asko hurbildu zen; antolatzaileen esanetan, aurreko urteetan baino gehiago. Eta arratsaldeko erromeriaren hasiera euritsua izan arren, gaueko erromeria bukatu bitarteko orduetan ateri eutsi zion.

Gaueko erromeriak goizaldera arte iraun zuen, plazan oraindik jendea dantzarako gogoz izan zen, eta Donostiatik oinez iritsitako erromesek ere izan zuten plazako giroaz gozatzeko aukera.

Argi dago Itziarko Erromeria Eguna urtez urte indartzen, sendotzen ari dela. Datorren urtean ere errepikatu beharko da!

*Andutz Itziarko Kultur Taldea*



## Hondartzan duna bat eratzeko lanak uda pasa ondoren burutuko dira

Gipuzkoako hainbat hondartzetako hondar mugimendu naturalek sortu duten arazoa beste modu batean kudeatzea pentsatu du Foru Aldundiak: hondarra bertan finkatzea lortu nahi da sistema natural baten bitartez. Horrela, haizeak mugitutako hondarra berdintzeko udalen urteroko lanak eta lan horiek suposatzen duten kostua ekiditea lortuko litzateke.

Kudeaketa modu berri hau ezin da Gipuzkoako hondartza guztietan burutu, hondartza zati lehor zabala dutenentan baizik: Deban, Orion eta Hondarribian hain zuzen. Momentuz, hondartza horietan, alde batetik besterainoko zabalera guztian egin beharrean, zati batean bakarrik burutuko da egitasmoa.

Esan bezala, landaretza naturala erabiliko da haizeak mugitzen dituen

hondar aleak finkatzeko. Eta landaretza natural hori finkatu bitartean prestatutako eremuak funtzionatu dezan zume adaskaz osaturiko hesiak ipini beharko dira hondar harrapatzaile gisara.

Hondartzetan lan horiek burutu ahal izateko Espainiako Ministerioaren Kosta Zerbitzuaren baimena lortzeko eskaera abian jarri da, baina tramitazioa luzatzen ari denez, eta baimena eskuratu orduko udaberria aurreratua egongo denez, lanak atzeratzea erabaki du Foru Aldundiak. Duna eratzeko landatu behar diren landareak, haren-ondokoa (*Ammophila arenaria*) eta dunetako askia (*Elymus farctus*), sustrai hutsik sartu behar dira eta udaberrian edo udan landatuz gero, euren bideragarritasuna kolokan egongo litzateke. Beraz, egin asmo dituzten lanak alferrikako ahalegi-



nean geratu ez daitezten, bai landaketak eta bai gainontzeko lanak ere, ezingo dituzte uda pasa arte abian jarri. Ondorioz, negua hurbiltzen den heinean emango diote hasiera duna eratzeari, eta aurrez proiektuaren berri emango da.

*Ingurumen eta Turismo Saila*

## Berrialaguna kanpaina aurkeztu du "Berria" egunkariak Deban

Berrialaguna kanpaina aurkeztu du BERRIA egunkariak Deban. Herriko kultur taldeetako eta eskoletako ordezkariekin eta bertara bildu ziren euskaltzaleekin bilera egin zuten Kultur Elkartearen hilaren hasieran.

"Gure ziztada behar du BERRIA egunkariak, gure laguntza, denon babesa", adierazi zuen Jose Anjel Aldai kanpainaren koordinatzaileak aurkezpen ekitaldian.

"Gure ziztada behar dugu" du leloa, izan ere, Berria Taldearen kanpaina honek, BERRIALAGUNAK egiteko kanpaina da, herriz herri egiten ari direna. BERRIAren irakurle eta zaleengana ez ezik, euskaraz bizitzeko asmoa dugun guztiongana iritsi nahi du, eta esan nahi die euskaraz bizi nahi badugu euskarazko hedabideak ezinbesteko ditugula eta horiei eutsi beharra dagoela.

Deban ere dei hori egin du BERRIAK: oraindik ere euskaltzaleen, euskaldun guztien babesa behar duela. Bere komunitatea inguruan sentitu nahi duela. Sostengua behar duela, etorkizun zail honi indartsu heltzeko. "BERRIA gizartearen ekimenaren emaitza izan zelako, eta aurrerantzean ere hala beharko duela izan, izango bada", nabarmendu zuen kanpainaren koordinatzaileak.

Informazio gehiago izateko edo laguntza moduak ikusteko internera jo daiteke, gune honetan: [www.berria.info/berrialaguna](http://www.berria.info/berrialaguna).



## Gipuzkoako 43. Hiru Txirlo Bolo Txapelketa, azken txanpan



Pasa den maiatzaren 12an, Gipuzkoako XLIII. Hiru Txirlo Bolo Txapelketako zazpigarren jaurtialdia egin zuten 80 bolari inguruk San Andresen (Soraluze). Aurtengo txapelketa martxoan abiatu zen, Azepeitan, eta ekainaren 2an jokatuko da azken jardunaldia -hamargarrena- Eibarko Asola-Berriko bolatokian.

Iazko lehia ez ezik, aurtengoan ere ordezkariak polita du Lasturrek; Joseba Lazkano, Roman Arrizabalaga,



Gotzon Uranga, Xanti Oñederra eta Pedro Goenaga bolariak osatzen dute taldea (goiko irudian, ezkerrean, ageri da talde osoa).

Hiru jardunaldi besterik ez dira falta txapelketa amaitzeko. Hurrengo hitzordua Elgetan dute bolariak, maiatzaren 19an. Hilaren 26an, San Roken (Elgoibarren) izango da jaurtialdia, eta ekainaren 2an Eibarren emango zaio amaiera aurtengo txapelketari. Saio guztiak 17:00etan izaten dira.

## Praileaitz I haitzuloaren inguruko hitzaldia eskaini zuten Peñalverrek eta San Josek

Xabier Peñalverrek eta Sonia San Josek Praileaitz I haitzuloari buruzko hitzaldia eskaini zuten apirilaren 26an, Debako Kultur Elkartearen Aranzadi Zientzia Elkartearen Historiaren Arkeologia Saileko kideak dira biak; Peñalver Praileaitz I-eko indusketa arkeologikoetan zuzendari lanetan aritu zen eta, Sonia San Jose, berriz, zuzendariorde lanetan.

Hitzaldiaren hasieran, haitzuloaren kokapena zein ezaugarri nagusiak azaldu zituzten, baita bertan egindako aurkikuntzen berri eman ere; Praileaitz I Europa mailan Paleolito Aroko sinesmenen mundua ezagutzeko aztarnategirik garrantzitsuenetako bat dela gogorarazi zuten hizlariak.

Ondare arkeologiko garrantzitsu hori, ordea, ez dago behar bezala



babestuta adituen esanetan, eta gaur gaurkoz Praileaitz I-en etorkizuna "arriskuan" dagoela ohartarazi zuten.

Hitzaldiaren amaieran, Kultur Elkartera hurbildutako herritarrek ere euren kezka eta iritzia azaltzeko aukera izan zuten. Solasaldi interesgarria sortu zen amaieran.

**urlo**  
SERVICIOS INMOBILIARIOS  
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

**API**  
Nº. 379

Higiezinaren Zerbitzuak  
Aholkularitza  
Higiezinaren Agentzia  
Komunitateen administrazioa  
Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajo Apartado 3  
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471  
Tel./Fax: 943 192 303  
urlo@urlosi.net

**MAXI BAR**

Lersundi, 28  
Tel.: 943 191 206  
Deba (Gipuzkoa)



## Akerzulo taldearen azken proiektuak



Aixan, ura daraman meandro bat ekipatu dugu anklaje kimikoak. Orain dela urte batzuk hasi ginen proiektu honekin baina, gure ezusterako, bueltatu garenerako, beste talde batek amaitu du ekipatzen. Tamalez, norbaitek anklajetako txapak lapurtu ditu eta orain arteko lanak alferrikakoak izan dira. Amorratuta, hori konpontzea erabaki dugu; lapurtu ezin diren anklaje kimikoak jarri ditugu. Aixako meandro zaharrek pasamanosa ere berritu egin dugu eta, orain, bi instalazio horiekin ibilbide zirkular bat osatu dugu: lehenengo meandroatik arroil bezala jaitsiz eta meandro zaharretik ateraez.

Aste Santuan San Bartolomeko leizea garbitzeari ekin genion Mendaroko udaletxeak utzitako zenbait materialekin. Ez zen lan erraza izan berrogei metrotako sakonera duen leize horretatik 400 kilo inguru zakar ateratzea: poleen bidezko tek-

nikak erabili behar izan genituen bertako zikinak ateratzeko, asteburu osoa eman genuen gogotsu lanean.

Ermittiako kobazuloko instalazioak ere berritzen hasi gara, koba seguruagoa izan dadin. Anklaje kimikoak jartzen ari gara, herdoilezinak direnez betirako iraun dezaten; horrela, lehendik zeuden instalazioak eta ekipatu gabe dauden zenbait gune hobetuko ditugu. Gainera ibilbide berri bat burutuko dugu Ermittiako gune ezberdinak batuz.

Akerzulo taldeak etorkizunean Izarraitzeko koben katalogo bat sortu nahi du eta gustura eskertuko genuke zuen laguntza: kobaren bat ezagutzen edo topatzen baldin baduzue, mesedez bidali iezaiguzue email bat korreo honetara: [akerzuloelkartea@gmail.com](mailto:akerzuloelkartea@gmail.com).

*Akerzulo taldea*

## Amaiak Baten lorpen handiena oroitzeko ekimenak



1962ko finalean, Atotxan, Mondragon taldeari 3-0 irabazi zioneko 50. urtemuga ospatu zuen Amaiak Batek pasa den maiztasaren 5ean. Taldekideek aipatu bezala, hitzorduan "giro polita izan zen, baita makina bat malko ere". Eguraldia lagun izan zuten eta, gainera, Errotazarren Intxurre taldearen aurka jokatutako ligako partidari Amaiak Bat izan zen garaile.


Urtemugako ospakizunen harira Agirre Jauregian

antolatutako erakusketara ere jende ugari hurbildu zen. 1962ko taldeko jokalariei omenaldia egin zieten, eta Realeko, Federakuntzako eta Debako Udaleko agintariek ere babesa eman zioten ekitaldiari.

Errotazar futbol zelaian arratsaldean jokatutako partidari, Adolfo Sotok egin zuen ohorezko satea, jokalarien ordezkari gisa.

**Seven Clovers**  
Irish pub  
Gozatu gure garagardoa  
Hondartza, 11 • 20820 DEBA • Tel. 943 191 295

 **Bar LOREA**  
"Orotariko tartak etxean eginak"  
Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095



## AGENDA

### \*Maiatzak 19, larunbata Debarren Eguna

-9:30. Haur margo lehiaketa-rako izen-ematea Udaletxe azpian.

-13:00. Debako gaiteroen kalejira.

-13:00. Herrira mugimendua antolatutako ekimena, Foruen plazan: txalaparta, bertsolariak, antzerkia, kalejira...

-Egun guztian zehar. Nava Jeevan Elkarteak postua jarriko du. Bertan, materiala saldu eta elkarteke informazioa eskainiko dute. Bazkide egiteko aukera egongo da.

-18:00. Haurrentzat entzierro hunkigarria.

-18:30. Erraldoi eta buruhandien kalejira, Lizarrako dultzaineroekin.

-20:00. Debako Banda kaleetan zehar.

-24:00. Debako Elektrotxaranga kalez kale.

-24:00. Debako Elektrotxaranga kalez kale.

-24:00. Debako Elektrotxaranga kalez kale.

-24:00. Debako Elektrotxaranga kalez kale.

-24:00. Debako Elektrotxaranga kalez kale.

-24:00. Debako Elektrotxaranga kalez kale.

-24:00. Debako Elektrotxaranga kalez kale.

-24:00. Debako Elektrotxaranga kalez kale.

-24:00. Debako Elektrotxaranga kalez kale.

-24:00. Debako Elektrotxaranga kalez kale.

-24:00. Debako Elektrotxaranga kalez kale.

-24:00. Debako Elektrotxaranga kalez kale.

-24:00. Debako Elektrotxaranga kalez kale.

-24:00. Debako Elektrotxaranga kalez kale.

-24:00. Debako Elektrotxaranga kalez kale.

-24:00. Debako Elektrotxaranga kalez kale.

-24:00. Debako Elektrotxaranga kalez kale.

-24:00. Debako Elektrotxaranga kalez kale.

-24:00. Debako Elektrotxaranga kalez kale.

-24:00. Debako Elektrotxaranga kalez kale.

-24:00. Debako Elektrotxaranga kalez kale.

### Debarren Eguna

-7:00. Diana, dultzaineroekin.

-8:00. Entzierroa. Ondoren, sokamuturra.

-11:00. Meza nagusia eta Ezpata-dantza San Roke ermitan. Ondoren, herriko elkarteek eskainitako salda eta txorizoa.

-11:45. Erraldoien konpartsa desfilea.

-12:30. Aurrekua, Gure Kai Dantza Taldearen eskutik.

-17:00. Haur margo lehiaketako sari banaketa, Kultur Elkartearen.

-18:00. Erraldoien alardea, plaza zaharrean.

-19:00. Berbena Mpost taldearekin, Foruen plazan.

-19:00. Berbena Mpost taldearekin, Foruen plazan.

-19:00. Berbena Mpost taldearekin, Foruen plazan.

-19:00. Berbena Mpost taldearekin, Foruen plazan.

-19:00. Berbena Mpost taldearekin, Foruen plazan.

-19:00. Berbena Mpost taldearekin, Foruen plazan.

-19:00. Berbena Mpost taldearekin, Foruen plazan.

-19:00. Berbena Mpost taldearekin, Foruen plazan.

-19:00. Berbena Mpost taldearekin, Foruen plazan.

-19:00. Berbena Mpost taldearekin, Foruen plazan.

-19:00. Berbena Mpost taldearekin, Foruen plazan.

-19:00. Berbena Mpost taldearekin, Foruen plazan.

-19:00. Berbena Mpost taldearekin, Foruen plazan.

-19:00. Berbena Mpost taldearekin, Foruen plazan.

-19:00. Berbena Mpost taldearekin, Foruen plazan.

-19:00. Berbena Mpost taldearekin, Foruen plazan.

-19:00. Berbena Mpost taldearekin, Foruen plazan.

-19:00. Berbena Mpost taldearekin, Foruen plazan.

-19:00. Berbena Mpost taldearekin, Foruen plazan.

-19:00. Berbena Mpost taldearekin, Foruen plazan.

-19:00. Berbena Mpost taldearekin, Foruen plazan.

-19:00. Berbena Mpost taldearekin, Foruen plazan.

-19:00. Berbena Mpost taldearekin, Foruen plazan.

-19:00. Berbena Mpost taldearekin, Foruen plazan.

eta Iruñeara. Izen-ematea: maiatzaren 22a arte.

### \*Maiatzak 28, astelehena

-18:00. Ikasleak Bertsoan (Luzarok eta Euskara Batzordeak antolatuta), Aldats pilotalekuan.

-18:00. Ikasleak Bertsoan (Luzarok eta Euskara Batzordeak antolatuta), Aldats pilotalekuan.

-18:00. Ikasleak Bertsoan (Luzarok eta Euskara Batzordeak antolatuta), Aldats pilotalekuan.

-18:00. Ikasleak Bertsoan (Luzarok eta Euskara Batzordeak antolatuta), Aldats pilotalekuan.

-18:00. Ikasleak Bertsoan (Luzarok eta Euskara Batzordeak antolatuta), Aldats pilotalekuan.

-18:00. Ikasleak Bertsoan (Luzarok eta Euskara Batzordeak antolatuta), Aldats pilotalekuan.

-18:00. Ikasleak Bertsoan (Luzarok eta Euskara Batzordeak antolatuta), Aldats pilotalekuan.

-18:00. Ikasleak Bertsoan (Luzarok eta Euskara Batzordeak antolatuta), Aldats pilotalekuan.

-18:00. Ikasleak Bertsoan (Luzarok eta Euskara Batzordeak antolatuta), Aldats pilotalekuan.

-18:00. Ikasleak Bertsoan (Luzarok eta Euskara Batzordeak antolatuta), Aldats pilotalekuan.

-18:00. Ikasleak Bertsoan (Luzarok eta Euskara Batzordeak antolatuta), Aldats pilotalekuan.

-18:00. Ikasleak Bertsoan (Luzarok eta Euskara Batzordeak antolatuta), Aldats pilotalekuan.

-18:00. Ikasleak Bertsoan (Luzarok eta Euskara Batzordeak antolatuta), Aldats pilotalekuan.

-18:00. Ikasleak Bertsoan (Luzarok eta Euskara Batzordeak antolatuta), Aldats pilotalekuan.

-18:00. Ikasleak Bertsoan (Luzarok eta Euskara Batzordeak antolatuta), Aldats pilotalekuan.

-18:00. Ikasleak Bertsoan (Luzarok eta Euskara Batzordeak antolatuta), Aldats pilotalekuan.

-18:00. Ikasleak Bertsoan (Luzarok eta Euskara Batzordeak antolatuta), Aldats pilotalekuan.

-18:00. Ikasleak Bertsoan (Luzarok eta Euskara Batzordeak antolatuta), Aldats pilotalekuan.

-18:00. Ikasleak Bertsoan (Luzarok eta Euskara Batzordeak antolatuta), Aldats pilotalekuan.

-18:00. Ikasleak Bertsoan (Luzarok eta Euskara Batzordeak antolatuta), Aldats pilotalekuan.

-18:00. Ikasleak Bertsoan (Luzarok eta Euskara Batzordeak antolatuta), Aldats pilotalekuan.

-18:00. Ikasleak Bertsoan (Luzarok eta Euskara Batzordeak antolatuta), Aldats pilotalekuan.

-18:00. Ikasleak Bertsoan (Luzarok eta Euskara Batzordeak antolatuta), Aldats pilotalekuan.

-18:00. Ikasleak Bertsoan (Luzarok eta Euskara Batzordeak antolatuta), Aldats pilotalekuan.

-18:00. Ikasleak Bertsoan (Luzarok eta Euskara Batzordeak antolatuta), Aldats pilotalekuan.

-18:00. Ikasleak Bertsoan (Luzarok eta Euskara Batzordeak antolatuta), Aldats pilotalekuan.

-18:00. Ikasleak Bertsoan (Luzarok eta Euskara Batzordeak antolatuta), Aldats pilotalekuan.

-18:00. Ikasleak Bertsoan (Luzarok eta Euskara Batzordeak antolatuta), Aldats pilotalekuan.

-18:00. Ikasleak Bertsoan (Luzarok eta Euskara Batzordeak antolatuta), Aldats pilotalekuan.


## 2012ko Euskal Jairako kartel lehiaketa antolatu du Zuhatzak

Zuhatza Euskara Elkarteak irailean ospatuko dugun aro berriko XV. Euskal Jairako kartel lehiaketa antolatu du. Kartelak derrigorrez testu hau izan beharko du: "EUSKAL JAIA 2012 DEBA".

Partaideak bertakoak izan behar dira. Kartelen neurria gutxi gorabehera 50x65 zentimetrokoa izango da, eta formatuak nahitaez bertikala izan beharko du (teknika librea izango da). Aurten hiru sari banatuko dira: irabazle nagusiak 150 euroko saria jasoko du, bigarrenak 100 euro lortuko ditu eta hirugarrenak, berriz, 50 euro.

Kartelak ekainaren 18, 19, 25 edo 26an jasoko ditugu Zuhatza Elkartearen lokalean (Iifar kalea, 12an), arratsaldeko 18:30etik 19:30era. Kartel irabazlea botoen bidez hautatuko da, erakusketa batean. Saritutako lana Zuhatzaren esku geratuko da.

Animatu eta parte hartu lehiaketan!



Iazko kartel irabazlea (Isidor Lamariano)

### Erakusketak Agirre Jauregian

-**Haitz Haundi** margolari taldearen erakusketa. Maiatzaren 20tik ekainaren 3ra.

-**Arte Eskola**. Kurtso bukaerako erakusketa. Ekainaren 8tik 17ra bitarte.

### Udalekuak

-**Debanaturak** multiabentura kanpamentuak antolatu ditu udarako, uretako eta mendiko jarduerekin (Euskal Kostaldeko Geoparkean eta Piriniotako Erronkari bailaran). Bestetik, Multiabentura eta Ingurumen Udaleku Irekiak ere prestatu ditu. Informazio gehiagorako: 943 19 11 72/695783656, [www.debanatura.net](http://www.debanatura.net) webgunea edo [debanatura@hotmail.com](mailto:debanatura@hotmail.com).

-**Ikimilikiliklip udaleku irekiak** (Deba eta Itziarren), Udaleko Euskara Batzordeak antolatuta. Uztailaren 2tik 13ra eta uztailaren 16tik 27ra bitartean egingo dira. Informazio gehiagorako, [www.deba.net](http://www.deba.net) ataria edo 943 60 80 48.

### Lehiaketak

-**Argazki Geologikoen II. Lehiaketa** antolatu du Euskal Kostaldeko Geoparkeak. Maiatzaren 28tik ekainaren 3ra bitartean, Europako Geoparkeen Astea ospatuko du Euskal Kostaldeko Geoparkeak Deba, Mutriku eta Zumaiako herrietan, egitarau zabal batekin, eta lehiaketa ekimen horien baitan antolatu da. Lanak aurkezteko epea: maiatzak 23. Oinarriak: [www.geoparkea.com](http://www.geoparkea.com) edo 946 015 428 telefono zenbakian.

### DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: TEL. 669 262 201

BURGEOA ZUAZO: TEL. 667 338 890

22:00etatik 09:00etara, Elgoibarren botika bat guardian.

09:00etatik 22:00etara, Debako botikak itxita dauden bitartean, aste osoan zehar, guardiako farmazia bat Deban edo Mutrikun.

Larunbat goizetan beti bat irekita:

9:30 - 13:30

### OHARRA:

**Gabeko farmazia zerbitzua Elgoibarrera**

Deba, Mendaro, Mutriku eta Soraluzeko zaintzako farmazia Elgoibarren zentralizatuko da aurten. Gipuzkoako Botiken Eskola Ofizialak hala eskatuta eta Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailak aginduta egin da aldaketa. Horrela, gaueko 22:00etatik goizeko 9:00etara farmaziara jo behar dutenek Elgoibarrera joan beharko dute.





# SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13  
Tel.: 943 192 386  
Deba (Gipuzkoa)



# ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

**OFICINAS Y EXPOSICION:**  
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 191 952 - Fax: 943 192 460  
E-mail: asketa@telefonica.net  
www.asketa.net

**ALMACÉN:**  
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9  
20850 MENDARO (Gipuzkoa)




# ABEL

## Kristaldegia

Mota guztietako kristalak  
Lan kristalarasak

Ibaiondo, 2 • 48700 ONDARROA (Bizkaia)

Tel. 946 833 269 • Fax 946 134 291 • E-mail: abel-kristal@euskalnet.net



# ARKATZA

## Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3  
943 192 057  
20820 DEBA



# ISABEL FRUTADENDA

Sokagin Kalea, 2 behe . 20820 DEBA  
943 029 186




# URDAITEGIA AITTOLA HARATEGIA

Astillero, 3  
Tlfnoa.: 943 191 776  
20820 DEBA

# LENTZERIA

# Azoka

## MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA



# kutxa

## zugandik zugana

# haizea

## estetika

Tlf. 943 029 607  
Iturkale 22, 1 eskubia  
sarrera Zesterokua plazaatik





# BURU - ZURI

## Taberna

- Otartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauetan tragoak

Lersundi Kalea, 23  
Tel.: 943 191 034  
20820 DEBA



# Kafetegia

Foruen Plaza  
Tel.: 943 191 035  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

# Calbeton



## JATETXEA

### Agustín Larrañaga Elorza

Denboraldiko platerra  
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea  
Tlfnoa.: 943 191 970  
20820 DEBA (Gipuzkoa)



# LARRAMENDI ANAIK, S.L.

- LIXATUAK
- BERNIZATUAK
- PARKET
- PARKET FLOTANTEAK

Tlfnoa.: 943 021 959  
Mobila: 670 411 786  
Tel.-Fax: 943 191 782

ARTZABAL AUZOA  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

*Ondo pasa Debarren Egunean!*



Irudia: Aprea

**Zuhotza**  
euskara elkarteak *mmz* deba